

### III. Ataleri ataltxo bat

*Iñork merezitzekoan irugarren itzaurrerik, bere ta bere lanen barri emoteko, uste dot eze Anai Balendiñ Berriotxoak merezi dabela. Ala be, esanak-esan urri gelditzeko arrisgua daukagu. Gaurkoz gutxi izango dira Euskalerrian bera lango langillerik kultura arazoetan. Ainbat aldizkaritan ainbat izenegaz agertzen dira bere emaitza onurakorrak. Bere idazkiok, zein aldizkaritan agerrerazten dabezan baño errezagoa ta obeagoa litzake zeintzuetan argitaratu ez daben aipatzea. Ez dot ezagutzen bere luma sartu ez daben aldizkaririk, naiz erderaz edo naiz euskeraz. Izan be, iñork bai al daki zenbat izenorderen pean agertzen diran bere lan orreik? Oparotsu dabil edozenbat aldizkaritan eta edozenbat gaitan.*

*Bere lelengo barriak ez dakit noiztikakoak dodazan, baiña ezagutza bereziena noizdik dodan bai: Bonaparte' ren eun-urte-muga dala-ta (1857-1957) Irun'go «El Bidasoa»k orain amar urte argitaratu eban kuadernu-separataren bidex izan zan. Asteroko orretan argitaratu*

zan lanetik amabosten bat ale edo bakarrik atera ebe-  
zan, ta egiñalak-egin ez neban izan ale bat eskuratzerik.  
Andik iru urtera, Mogel, bere bizitza ta lanak liburu-  
txoari aipamena egin eutsan astekari berean ta andik  
lasterrera artu neban, beragandik, ainbeste gure neban  
Bonaparte'ren lan ori. Neretzat ain baliozkoa zan lana  
papel-zarren artean zikiñetara botata aurkitu eban egi-  
lleak berak. Ori da azkenerako libururik geienen buru-  
bidea. Baiña, dana dala, neretzat ondo be ondo etorri  
zan Anai Berriotxoaren lelengo lan berezia. Lelena? Ez  
nekin asko orduan alako ta olako izenezkoa be bera za-  
nik.

Aintziñakoa bada be, euskal idazle ta idazle'ez diranen  
artean ordezeko izenak erabiltea, ondo beretu eban Anai  
Berriotxoak oitura au. Bein, itaundu neutsan: «Izan ete  
da iñor, gure literaturan, zuk aiña izenorde erabilli da-  
benik?». Arrigarria bada be, baietz erantzun eustan:  
«Bai; bat bada nik aiña izenorde erabilli dabezana: Ga-  
briel Manterola». Ez da makala! On Gabriel abade Pla-  
zentzian egon balitz be; baiña Eibar'tik atera ete ebazan  
orrenbeste izenordezko?

Gure Nikolas Alzola Gerediaga, Anai Balendiñ Be-  
rriotxoa, N. de Cortázar, Bitaño, Markue, Ozerin-Jau-  
regi, Alzarte, Dolometa, Oxiñondo'ko Txoria, V. del  
Parral edo danalakoa, ez da erreza izanez eta izenez mu-  
gatzea. Noizbait konturatu zan euskal kulturaren arloan  
asko egoala egiteko ta gutxi zirala egingo dabienak. Ta  
bera lezko gizon kezkatia ezin leie arnasarik artu es-  
parru estu batean. Arduraz eta leun aztertu dittu gure  
kondaira, bibliografia, literatura, biografia laburrak,  
erri-ipui ta abar, ta ez gutxitan gure artisten lan eta  
bizitzaretzaz. Olerkari saillean be aspalditik dabil, ta

azkenengoz artu daben bidetik (ikusi 1966-ko «Egan»en, Oar laburrak: Kantuz eta itxaropenez poema eztsua) kimu barriak emongo deutzaz eusko-olerkaritzaren magalari.

Aldizkarien bidez, bai euskeraz eta bai erderaz, bere eguneroko izpiritua emoten diardu, euskal arimaren garrak iraun dedin. Txindurria bera baiño langilleago; ze, janari gutxigaz neguak artu giñuzenez, orain negu baltzean jardun bear, etetzeke, zer jan eta zergaz berotu falta ez deian gure ametseko udabarriagaz itzartuko diran gaztetxoeri. Bai denbora latzak ekaxpean lan egiñaz igarotakoak. Zeruan esperantza bagerik ez dakit ez ete dan oba osin-baltz izoztuan bertan-bera ehortzea. Ala be, beste eskerrik nekez jaso geinkeanez, iñoren esker onari begiratu gabe aurrera goaz. Anai Berriotxoak ondo daki jakintzak eta lanak bakarrik azkatuko gaituala.

Egille ugariagandik, irakurleak, ez dedilla espero lan trinko ta gai bakar batean estaturikoa. Andik eta emendik, onetaz eta aretaz jardungo da gure idazlea. Jardungo da, diñot; onek ondorenak ekarriko deuskuzelako. Ez pentsa Anai Berriotxoa emen geldituko danik. Jainkoak grazia emoten badeutsa, au eta Cien autores vascos (Editorial Auñamendi. San Sebastián, 1966) bere lan ugarien zatitxo bat besterik eztira. Gaiñera, emen ondo egin dau egilleak berak erabiltzen dabezan gai geientsuenetatik zatitxoak artzea. Orregaitik da ain erreza irakurteko. Izenak diñoan lez, Atalak, ataltxo batzuek besterik ez dira, bere alorretako sailletatik artuak. Olako askok beteko leukie bere emaitza oparotsua. Bere uztak zerbait asetu lei euskaldunok (edo obeto esan, euskeltzaleok) daukagun irakurgai gosea.

Ondo betea daroa Pio Baroja aundiak liburueri eskatzen eutsen neurria: «aspergarria ez izatea». Bizkor eta atsegiñez irakurtekoa dalako.

Egilea ezagutzen dabienak, bere lumea bere elea lez aurkituko dabil. Gutxien uste dan gauzezag eta gutxien uste dan bideetatik jardungo da iñoiz, bere kontaera ez-titsuagaz beti zerbait barri irakasten deuskularik.

Ta ez gitxitan lendik genkiana, gozoki, gogorapen-miñera ekarri. Amaika aldiz entzun nebazan amandria Sinforosa (amaren aldetik) otxandiarraren altzoan Mari-Urrikaren elezaharrak, bildurrez izututa estutzen nintzan bere bularretara. Gure amandriak esaten euskunex, Mari-Urrika zan Anboto mendiko damearen izena. Oin ez da oiturarik umieri olako ipui bildurgarriak kontatzeko.

Gure aozko literaturan bada zer jaso ta zer aztertu. Au ondo daki Anai Berriotxoak. «Urretxako Santua» eta «Fraidearri» ipuiñetan errez ikusi geinke Ulises'en gertaeraren gaia. Barandiaran eta Caro Baroja'k be antzerakoak jaso ebiezan (1). Iñoiz ez dogu jakingo andik onakoak ala emendik arakoak diranik.

Autu-mautuak dakarx umorearen adigarri, batez be Bizkai aldeko umore zorrotz ez tentsuarenak: «Manuxepa ta Enrike», «Belengo atarteko astua Mañarin» eta «Lorentzo ta Txatxaliñ». Orrezaz gaiñera, saioz eta jakintza oar laburrez ondo ornitua dago.

Bakar-bakarrik «Eusko-Kulturaren-Irakasle» asmoaregaz ez nago ain konforme. Asmuari berari ondo deri-

---

(1) Algunos mitos españoles y otros ensayos. Julio Caro Baroja. Página 49. Editora Nacional. Madrid, 1944.

“Eusko-Folklore” (Materiales y Cuestionarios). Munibe, tomo VI, 286/294 or. Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi. Donostia, 1954.

txot, baiña eruateko moduan, izkuntzaren aldetik, esamiñak naiz euskeraz edo naiz erderaz izatean ez nator bat. Saillak ez banantzera beintzat, zenbait oitura, joku, folklore ta batez be literatura, bear-bearrezkoa da euskeraz ondo jakin bearra; kulturaren sail oneik euskera bage sakontzeko modurik ez dagoalako. Bestela oso azaletiko kultura izango litzake. Gaiñera, jokaera bera izango litzake euskera ittotzeko bide bat. Ordua dogu euskeratzaz erderaz ez jarduteko. Ordua, gure aberkide euskaldunak erdera apaiñean euren buruak luzitzea uzteko. Balitzko olak ez dau burdiñarik emongo. Egillia bera be, onetan, nerekin dagoan uste osoa daukat.

Zenbait pintore ta idazleren barriak, era bigunez kontauaz, jakingarriak dira benetan. Bera be, iñoiz, artearen alde orretatik abiatu izan da, ta barrukaldeko deiak, auntzak mendira eta gure Pedrotxin enparantzara lez, daroa egillearen luma pinturara.

Bere euskera, erriaren sustraitikakoa dau. Berak iñoiz esan deustan lez: «Sustrai zarretatik bide barriak» jorratzen diarduala. 1922-an Izurtzan mundura etorri zanez ta bertan bizi umezaroa ta gaztaroaren zati bat, Lasailletar eleiz-gizon joan arte beintzat, Durengo inguruetako euskalki ederra dau oiñarriztat. Euskalkien inguru guztiak orrenbeste baleukie, beste txori batek kantatuko eutsan euskerari. Euskaldun bakotxa, beria ondo ikasita obeto dago besteena ikasteko be.

Bizkaiko euskera erreza, euskera gozua, zer esan bear danari begira eta ez zelan esan bear danari. Ez da gutxi, oindiñok be, idazle bizkaitarren artean, garbikeriz kutsatuta dabiz asko ta asko, izkuntzaren gunetik aldendurik. N. Alzola'rena ez dogu era orretakoa. Bere euskeran ez dago faltsukeririk; bere euskeran ez dago

izkuntza jatorraren muinetikakoa ez danik. Bere karta batean esaten eustan lez: «Nik uste dot, gerrate-oste-kuok, talde barri bat ekarri dogula, gu-geu konturatu barik zer egiten gabizen, berez etorri jakun eria gaitik. Geienok liberauta gagoz garbikeri-problematik, eta gramatika larregi begiratu barik, gaiari begiratzen deutsagu geiago. Orain datorren talde barriarekin be batuko garala pixkat uste dot, edo beintzat influentziya ezagutuko jakula geienoi».

Egilleak, nik lez, euskera erdera baiño obeto dabil. Cien autores vascos-eko erderak artuko leuke emengo euskeraren gatza. Berak lez euskera benderatzen daben euskaltzalek ez leukie iñoiz be erderaz idatzi bear. Obeto esan, ez genduke iñoiz erderaz idatzi bear. Esaten doguna jakin gura dabenak euskeraz ikasi deiala, edo nai dabenak erderaratu dedilla beste batzuen jakin nairako. Ta, or-konpon! Euskeraren guna billatu dogunok ortik jokatu bear genduke. Olaxen gordeko genduke izkuntzaren balioa.

Gaiñera, lan oneitan, bere izate apala eta paketsua azaltzen dau. Gizonaren prolemen aurrez-aurre bere bizitzaren barru sendo ta adoretuaren gogoan egoera bare-ertzitsua aurkitu dabenarena. Sarri, alkar, kezka bardiñen jabe ba gara be, ez naiz bere modukoa; baiña ala be, bere estiluan, bere kontaeraren estiluan, gogo atsenden unak aurkitzen dodaz. Una baretsuak nere bide urduri traketzean. Alkarren izaeren antagonizmu onek, ideal bardiñekoak garalako edo, gogotsu narioia bere orrien barrutik gozamina zurkatuz. Irakurten dabeneri orrenbeste lortzen badeutse, ezta gutxi. Ta, lortuko dabien esperantzatan nago.

Eibar, 1967-ko Epaillean.

Juan San Martín